

Ebazpena: R5/2021
Espedientea: 46/2012

Gasteizen, 2021eko abenduaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak, Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatuta, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

VAR SLk Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA), Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean BFA), Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean AFA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita Sozietate horren 2008 eta 2009 urteetako BEZaren ordainarazpen-eskumena zehaztea, Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen dena (46/2012 espediente-zenbakia).

I. AURREKARIAK

1.- 2012ko abenduaren 26an, VAR SLk gatazka negatiboa planteatu zuen ZAEA, BFA, AFA eta GFAREN aurrean, 2008 eta 2009 urteetako bere BEZaren ordainarazpen-eskumenari dagokionez.

2.- VAR SLk bere eragiketen zenbatekoaren arabera tributatu zuen 2008an, horretara behartuta zegoela ulertzen zuelako urte horretan eragiketen zenbatekoaren 7.000.000,00 euroko kopurua gainditzeagatik.

Kontuan izanik lurralde bakoitzean urte-amaieran egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ehuneko ez zettorrela bat lurralde bakoitzari hileroko autoliquidazioetan egindako tributazio-proporzioarekin, autoliquidazio bat baino gehiago sortu ziren ordaintzeko eta itzultzeko, hurrenez hurren; hori dela-eta, Administrazioen artean zegozkion sortak eskatu zituen.

3.- VAR SLk BFARI (bere egoitza fiskalari dagokion administrazioari) soilik tributatu zion 2009an, horretara behartuta zegoela ulertzen zuelako urte horretan eragiketen zenbatekoaren 7.000.000,00 euroko kopurua ez gainditzeagatik.

Hileroko autoliquidazioak aurreko urteko eragiketen zenbatekoaren arabera aurkeztu eta ordaindu zirenez, autoliquidazio bat baino gehiago sortu ziren ordaintzeko eta itzultzeko, hurrenez hurren; hori dela-eta, Administrazioen artean zegozkion sortak eskatu zituen.

4.- ZAEAk behin-behineko likidazioa eman zuen, VAR SLk 2009an BFari soilik tributatu behar ziola adieraziz 2008ko eragiketen zenbatekoa ez zelako 7.000.000 eurotik gorakoa.

ZAEA ondorio horretara iritsi zen VAR SLk aitortutako eragiketen zenbatekoa aldatzean; ZAEAk ulertzen zuenez, ez zen konputatu behar hartzekodunen konkurtsopeko eskurazaile bati egindako eta kobratu gabeko ondasun-emedun salmenta bat.

ZAEAk erabaki zuen 2009ko hileroko autolikidazioetan BFari bidegabe kobratutako zenbatekoak sorta bidez transferitzea.

5.- BFAk behin-behineko likidazioa eman zuen, 2008ko eragiketen zenbatekoak 7.000.000,00 euroko kopurua gainditu zuela ulertuz eta, beraz, 2009an eragiketen zenbatekoaren arabera tributatu behar zuela ulertuz.

6.- AFAk behin-behineko likidazioa eman zuen, 2008ko eragiketen zenbatekoak 7.000.000,00 euroko kopurua gainditu ez zuela ulertuz, eta, beraz, 2009an BFari soilik tributatu behar ziola ulertuz; horrela, bidegabe kobratutako autolikidazioak transferitu zizkion BFari, sorta bidez.

7.- GFAk behin-behineko likidazioa eman zuen, 2008ko eragiketen zenbatekoak 7.000.000,00 euroko kopurua gainditu zuela ulertuz eta, beraz, 2009an eragiketen zenbatekoaren arabera tributatu behar zuela ulertuz; horregatik, sorta bidezko transferentziazko itzulketa ukatu zion BFari.

8.- VAR SLk borondatezko konkurtsoa eskatu zuen 2013ko maiatzaren 6an. Bilboko Merkataritza arloko 2 zenbakiko Epaitegian izapidetu zen, 404/2013 auto-zenbakiarekin, eta 2020ko irailaren 18ko Auto bidez amaitu zen. Autoan, sozietatea desegin zen eta konkurtsoa amaitu zen masa aktiboaren eskasiagatik, eta konkurtsopekoaren nortasun juridikoa azkentzea erabaki zen.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren (aurrerantzean EIABA) 13.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan gatazka negatibo bat planteatzeko legitimazioa baloratu behar da Errege Dekretu horren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 3.a) artikulua babesean; bertan aurreikusitako efektuetarako, arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona juridikoek izango dute administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna.

Bigarrena.- Sozietate zibilen jarduteko gaitasuna behin betiko galtzen da ez sozietatea desegitean, baizik eta sozietatearen nortasun juridikoa azkentzean.

Masa aktiboaren eskasiagatik konkurtsoa amaitzearen ondoriozko erregistro-ezereztea egin ondoren sozietate bat azkentzearen arazoa oso eztabaidagarria da, eta hori aipatu du Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak, besteak beste, 2017ko abuztuaren 30eko bere Ebazpenean.

ENZNk dioenez, Konkurtso Legeak (178.3 artikulua) xedatzen duen nortasun juridikoaren azkentzea ulertu behar da sozietatea azkentzeko presuntzio gisa, sozietate zordunak eta kaudimengabeak trafikoan jarduten jarraitu ahal izan dezan. Hala ere, azkendutako sozietatearen nortasun juridikoak iraun dezake oraindik ere ezereztu ondoren, egozpenerako hondar-zentro gisa, harik eta sozietatea titular den harreman juridikoak erabat agortu arte, eta, horrenbestez, erregistro-ezereztearen ondoren sozietateak eskubide eta betebeharren titular izateko gaitasunari eusten dio. Doktrina horren alde aipa daiteke AGren 2017ko maiatzaren 24ko epaia (34/2017 epaia).

Hirugarrena.- Azaldutakoaren arabera, ez litzateke bidezkoa izango ondorioztatzea edozein gatazka artxibatu behar dela besterik gabe auzi-jartzailea azkendu delako konkurtso-prozedura baten amaiera gisa.

Bidezkoa da, ordea, kasu bakoitzari lotutako inguruabarrak aztertzea, halakoen arabera auzi-jartzailea azkentzeak kasu jakin batean gatazka artxibatzea justifika ote dezakeen zehazteko.

Gatazka honetan, VAR SLk osorik ordaindu du (eragindako administrazio guztiak kontuan hartuta) 2008 eta 2009 urteei zegokien BEZ kuota; beraz, ez dirudi hari inolako kalterik sortuko zaionik azkentzea dela-eta prozedura artxibatzeagatik.

Laugarrena.- Eragindako Administrazioak, kasu honetan, ez dira prozeduran "pertsonatutako" hirugarren interesdunak, erabat utzi baitituzte alde batera eskumen-gatazka positibo bat planteatzeko beren ahalmenak, hori baitzen koherentea haietako bakoitzak zergapekoari zuzenean nahiz sorten bidez ordainarazitako zenbatekoekin ados ez bazeuden.

Horregatik, eskumen-gatazka positiborik aurkeztu ez denez Arbitraje Batzorde honetan VAR SLren BEZa ordainarazteari dagokionez, ondorioztatu behar dugu prozedura artxibatzeak ere ez dituela haiek kaltetzen.

Bosgarrena.- Kontuan hartuz, bestalde, auziaren muinari buruzko balizko ebazpen baten ondorioz Administrazio batek beste baten aldean izan ditzakeen balizko kredituak izango liratekeela administrazioen artean konpentsatu beharreko zenbatekoak eta zergapekoari ez litzazkiokeela inola ere abonatu beharko, prozedura artxibatzeak ez luke inongo hartzekodunik kaltetuko, eta, gainera, ez da horrelakorik prozeduran pertsonatu.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU:

1.- 46/2012 gatazka negatiboa artxibatzea, auzi-jartzailearen (VAR SL) nortasun juridikoa azkentzeagatik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Arabako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea.